

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1446

EBAZPENA, 2022ko martxoaren 21ekoa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko G4, G5 eta G6 gisa sailkatutako landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak esleitzeko Balorazio Batzordea osatuko duten pertsonak (Erein publikoak 2022).

Ikusi da 2021eko abenduaren 15eko Agindua (2021eko abenduaren 30eko EHAA, 261. zk.), zeinaren bidez deialdia egin baita 2022ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko «Landa-eremuen definizio teknikoa» azterlanean G4, G5 eta G6 gisa sailkatutako landa-eremuak sustatzeko eta garatzeko laguntzak emateko.

Aintzat hartu da agindu horren hamargarren puntuan aurreikusitakoa, non xedatzen baita Balorazio Batzorde bat eratuko dela aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Balorazio Batzordeak hiru kide izango ditu, landa-garapenaren arloko eskumena duen Zuzendaritzako talde teknikoko kideak izango direnak eta landa-garapenaren arloko zuzendariak izendatuko dituenak, eta adierazi beharko da zein izango diren idazkaria eta batzordeburua.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordea osatuko duten pertsonak izendatzea eta haren osaera jakinaraztea:

Batzordeburua:

- Ibon Arbaiza Ugarte.

Batzordekideak:

- Angeles Diez Diez, idazkaria ere izango dena.
- Jone Loiola Barrainkua.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioak izan ditzan eta jende guztia jakinaren gainean egon dadin.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 21a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.